

## BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

1. orria

### Enpresaren identifikazioa eta helbidea

- TERMINALES PORTUARIAS, S.L.
- Ceballos lurmuturreko zelaigunea, z.g., 48505 - ZIERBENA

### 1254/1999 Errege Dekretua bete dela adieraztea

TERMINALES PORTUARIAS, S.L. enpresaren lantegiak uztailearen 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteko ditu. (Errege Dekretu horren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira).

Araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitakoari jarraiki, enpresak nahitaez aurkeztu beharreko segurtasun-txostena aurkeztu dio eskumena duen agintari.

### Enpresaren jardura

TERMINALES PORTUARIAS, S.L. enpresak solteko produktu likidoak jasotzen, biltegitratzen eta berriz bidaltzen jarduten du.

### Istripu larria eragin dezaketen gaiak

- Enpresan hainbat gai arriskutsu biltegitratzen eta ontziz aldatzen dira (metanola, gasolina, hexanoa, heptanoa eta xilenoa); alabaina, biltegitratzen diren kopuruak eta hartu diren segurtasuneko neurriak kontuan izanda, gerta litezkeen istripuek instalazioen ingurumarietan baizik ez lukete eraginik izango.

**Izan daitezkeen istripu larriak eta harien ondorioak**

Egoera horren ondorioz, instalaziotik kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:

- Metanolaren tankea gehiegi betetzea.
- Kubetan gasolina edo metanola suak hartzea.
- Heptanoaren tankeak eztanda egitea.

Istripu hauek gainpresioak (eztanda gertatzen bada), kontzentrazio toxikoak (substantzia toxikoen ihesa gertatzen bada) edo bero-erradiazioak (su-bolaren kasuan) sor ditzakete eta horiek pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean eragina izan dezakete. Aurreikusitako gas-kontzentrazioaren, gainpresioaren edo bero-erradiazioaren arabera, bi jardun-eremu definitu dira: Esku hartzeko alderdia (EA) eta alerta-egoerako alderdia (AA). Hona hemen alderdi horiei dagozkien balioak eta ondorioak:

**GAINPRESIOA**

Alderdiak	Gainpresioaren balioa (mbar)	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
EA	125	Kristalak haustea.	Kristalak jaurtitzearen ondorioz, zauritzea.	---
AA	50	Trenkadak eta panelak haustea.	Trenkaden artean harrapatuta geratzea eta, ondorioz, zauritzea.	---

**KONTZENTRAZIO TOXIKOA**

Alderdiak	Kontzentrazio-balioa	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
EA	IPVS	---	Ez dago sintoma larriarik, ez eta ondorio itzulgarriarik ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa).	---
AA	IPVS %25	---	Ondorio txikiak talde sentikorretan.	---

**BERO-ERRADIAZIOA**

Alderdiak	Bero-erradiazioa (kW/m <sup>2</sup> )	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena
EA	5	---	2. graduko erreduarak (> 30 s.)	---
AA	3	---	1. graduko erreduarak (> 30 s.)	---

**Istripu larria izanez gero biztanleei ohartaraztea eta informazioa ematea**

Goian aipatutako istripuetakoren bat eragin lezakeen istripu-egoera badago instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleei ohartarazteaz eta informazioa emateaz. Honako bitarteko hauek erabiliko dira biztanleei ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniaz. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak egingo ditu.
- Gizarte-komunikabideak (telebista eta irratia).

## BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

3. orria

Instalazioan istripu larria gertatzen bada, biztanleek ondoren agertzen diren neurriak hartuko dituzte, istripu-egoeraren ezaugarriak, horren bilakaera eta instalazioekiko hurbiltasuna kontuan hartuta:

- Konfinamendua
- Urrutiratzea

## BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

4. orria

### Istripu larria izanez gero instalazioan egin beharrekoa

1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrei jarraiki, instalazioan istripu larria izanez gero, honako hau egin beharko da:

- Neurri egokiak hartu beharko dira, istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzan.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da.

Instalazioan bertan egiten diren esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak Barruko Larrialdi Planean jasota daude.

### Kanpoko Larrialdi Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdi Plana prestatu du TERMINALES PORTUARIAS, S.L. enpresaren instalazioan gerta litezkeen istripuetarako. Plan horren bidez, antolatzeko modua eta beharrezkoak diren baliabideak ezarri dira, instalaziotik kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruak nola edo hala kaltetu dezaketen egoerei aurre egiteko.

Kanpoko Larrialdi Plan honetan, larrialdi-zerbitzuek nola jokatu behar duten adierazi da eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jaso dira.

### Informazio gehigarria

Informazio gehigarria nahi izanez gero:

- Web gunea: [www.euskadi.net/112](http://www.euskadi.net/112)
- Telefonoa: 945 01 88 83